Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA - 2023-11-16
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2023-11-23
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00180/2023 - Data/Fecha: 2023-11-23
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-11-23
GZko 15.gaia onartuta - Aprobado, asunto 15) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, zeinaren bidez, 2024ko ekitaldirako onartzen dira, beken oinarri arautzaileak eta deialdia, Arte Plastikoen eta Ikusmen-Arteen, Arte Dramatikoaren, Musikaren, eta Dantzaren modalitateetan.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de becas en las modalidades de Artes Plásticas y Visuales, Arte Dramático, Música y Danza, para el ejercicio 2024.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, besteak beste, Bizkaian talentu artistikoa eta sortzailea sustatzea helburu duen kultura-politika planteatzen du. Horretarako, beharrezkotzat jotzen du sormen- eta arte-bokazioa duten pertsonen prestakuntzan inbertitzea, eta mundu osoan goi-mailako prestakuntza-programetarako sarbidea erraztea. Hori dela eta, foru dekretu honen xedea da bide egokia ezartzea interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren kultura-arloko bekak eskuratu ahal izateko.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia plantea una política cultural que tiene entre otros objetivos el fomento del talento artístico y creativo en Bizkaia. Para ello, ve necesario invertir en la formación de las personas con vocación creativa y artística, facilitándoles el acceso a programas formativos de alto nivel en todo el mundo, por lo que este decreto foral tiene por objeto establecer el cauce adecuado a través del cual las personas interesadas podrán acceder a becas en el ámbito cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.

Esparrua horrela zehaztuta, Bizkaiko Foru Aldundiak, arte eta kultur arloko sormenaren interpretazio-tekniken hedapena sustatzeko asmoz, urtero egiten du Sormen Artistikorako (Arte Plastikoen eta Ikusmen-Arteen modalitatean), Arte Eszenikoen arloko Trebakuntza eta Hobekuntzarako (Arte Dramatikoa, Musika eta Dantza, hurrenez hurren) bekak emateko deialdia.

En este marco así definido, y con el fin de promover la difusión de técnicas interpretativas de creación en el ámbito de las artes y de la cultura, viene convocando con carácter anual Becas de Creación Artística en la modalidad de Artes Plásticas y Visuales, y de Formación y Perfeccionamiento en el área de las Artes Escénicas (Arte Dramático, Música y Danza) respectivamente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Prestakuntzaren bikaintasunaren aldeko apustua indartze aldera, beharrezkotzat jotzen da programa honi eustea eta programa honi Arte Plastiko eta Ikusmen-Arteak, Arte Dramatikoa, Musika eta Dantza modalitateetako 2024ko ekitaldirako eskatzeko eta emateko araudia ematea.

De cara a reforzar la apuesta por la excelencia en la formación, se considera necesario mantener y dotar a este programa de la normativa reguladora de la solicitud y concesión de becas para el ejercicio correspondiente al año 2024 en las modalidades de Artes Plásticas y Visuales, Arte Dramático, Música, y Danza.

Dekretu honen xedea da bikaintasuna eta prestakuntza hainbat arte-diziplinatan lortzeko espektatibak dituzten pertsonak detektatzea eta sostengatzea. Horregatik, onuradun posibleen adinak mugatzen dira, uste baita goragoko adin-taldeek jada erdietsita eduki behar lituzketela arte-sorkuntzaren barruan proiekzioa izateko beharrezkoak diren lorpenak.

El objeto de este decreto es la detección y apoyo a personas con expectativas de lograr la excelencia y la formación en distintas disciplinas artísticas. Por ello, se delimitan las edades de las posibles personas beneficiarias ya que se considera que los grupos de edad superior ya debieran haber obtenido los logros necesarios para tener proyección dentro de la creación artística.

Proposatutako xedapen orokorraren gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio. Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a).12. artikuluan xedatutakoarekin bat, lurralde historikoetako foru erakundeei eskumen esklusiboa dagokie, besteak beste, arlo hauetan: lurralde historikoaren titulartasunekoak diren eta Arte Ederrekin eta Artisautzarekin zerikusia duten artxibo, biblioteka, museo eta erakundeen arloan.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de lo dispuesto en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos competencias exclusivas en su artículo 7.a).12 entre otras, en materia de archivos, bibliotecas, museos e instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía de titularidad del Territorio Histórico.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail honi ematen dio Bizkaiko Lurralde Historikoko talentu artistikoa sustatzeko eskumena.

En este sentido, el decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte atribuye a este Departamento la competencia para promover el talento artístico del Territorio Histórico de Bizkaia.

Dekretu hau bi titulutan egituratu da. Lehenengo tituluan, hurrengo tituluari dagozkion estipulazio komunak ezartzen dira; bigarrenean, diziplina artistiko bakoitzerako estipulazio espezifikoak xedatzen dira:

Este decreto se ha estructurado en dos títulos. En el primer título se establecen las estipulaciones comunes al siguiente título, en el que se establecen estipulaciones específicas para cada disciplina artística:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

I. titulua Estipulazio komunak.

I. kapitulua Xedapen orokorrak.

II. kapitulua Araubide juridikoa.

III. kapitulua Prozedura.

IV. kapitulua Beken kudeaketa eta justifikazioa.

II. titulua Estipulazio espezifikoak.

I. kapitulua Arte plastikoak eta Ikusmen-Arteak.

II. kapitulua Arte Dramatikoa.

III. kapitulua Musika.

IV. kapitulua Dantza.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datxezkien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Beste alde batetik, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta

Título I Estipulaciones comunes.

Capítulo I Disposiciones generales.

Capítulo II Régimen jurídico.

Capítulo III Procedimiento.

Capítulo IV Gestión y justificación de becas.

Título II Estipulaciones específicas.

Capítulo I Artes Plásticas y Visuales.

Capítulo II Arte Dramático.

Capítulo III Música.

Capítulo IV Danza.

Asimismo, en la tramitación de esta disposición se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea eta ondore horretarako urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia txertatzen du, bai hura lantzean, bai aplikatzean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Dekretu horren bidez, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira.

mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, en la elaboración del presente decreto se han emitido los siguientes informes:

1. Genero-eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa.

2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.

3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena.

4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

5. Legezkotasunari buruzko txostena.

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.

2. Informe jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

4. Informe de control económico.

5. Informe de legalidad.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los Diputados Forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Foru Aldundiaren beken oinarriak eta deialdi publikoa onartzea.*

2024ko ekitaldirako onartzen dira beken oinarri arautzaileak eta deialdia, arte plastikoen eta ikusmen-arteen, arte dramatikoaren, musikaren, eta dantzaren modalitateetan.

## Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion bekak ematea.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak

otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un sólo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria pública de becas forales.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de becas en las modalidades de artes plásticas y visuales, arte dramático, música, y danza durante el ejercicio 2024.

## Disposiciones finales

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

1. Se habilita a la Diputada Foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las becas pertinentes.

2. Asimismo, se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para acordar la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

ampliación del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte. LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2024KO EKITALDIRAKO ARTE PLASTIKOEN ETA IKUSMEN-ARTEEN, ARTE DRAMATIKOAREN, MUSIKAREN ETA DANTZAREN MODALITATEETARAKO BEKEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE BECAS EN LAS MODALIDADES DE ARTES PLÁSTICAS Y VISUALES, ARTE DRAMÁTICO, MÚSICA Y DANZA PARA EL EJERCICIO 2024.

I. TITULUA

TÍTULO I

Estipulazio komunak

Estipulaciones comunes

I. KAPITULUA

CAPÍTULO I

Xedapen orokorrak

Disposiciones generales

1. oinarria. *Beken xedea.*

Base 1. *Objeto de las becas.*

1. Bekak bakarrik jaso ahal izango dituzte ikasturte bateko (ohiko iraupena 2024ko irailaren 1etik 2025ko ekainaren 30era arte izaten da) iraupena duten proiektuek, modalitate hauetan:

1. Sólo podrán ser objeto de becas, aquellos proyectos que tengan la duración correspondiente a un curso escolar (duración habitual entre el 1 de septiembre del año 2024 y el 30 de junio del año 2025) en las siguientes modalidades:

a) Arte plastikoak eta Ikusmen-Arteak.

a) Artes Plásticas y Visuales.

b) Arte Dramatikoa.

b) Arte Dramático.

c) Musika.

c) Música.

d) Dantza.

d) Danza.

2. Ez da inolaz ere diruz lagunduko sexua dela-eta diskriminatzailea den prestakuntza-proiekturik.

2. En ningún caso se apoyará económicamente a proyectos de formación que discriminen por razón de sexo.

3. Foru-dekretu honen bidez arautzen diren bekak onuradunei dakarzkien zenbait gastu finantzatzeko erabiliko dira; hain zuzen ere, gastu hauek finantzatzeko:

3. Las becas a conceder, reguladas mediante el presente decreto foral, subvencionarán los gastos de las personas beneficiarias que a continuación se relacionan:

a) Matrikula-gastuak eta jasotako irakaskuntzaren zein eskolen ziozko kuotak.

a) Gastos de matrícula y cuotas por enseñanzas y clases recibidas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) Onuradunak egiten dituen bidaien gastuak direla-eta, zenbateko hauetara arteko baino ez da diru-laguntzarik emango:

1) Euskal Autonomia Erkidegoan -Bizkaian izan ezik- egiten diren proiektuetarako bekengatik: gehienez 500 €.

2) Estatuaren gainerako lekuetan egiten diren proiektuetarako bekengatik: gehienez 800 €.

3) Atzerrian egiten diren proiektuetarako bekengatik: gehienez 1.200 €.

c) Onuradunak egiten dituen ostatu- eta mantendu-gastuak Bizkaitik kanpoko beketarako baino ez daiteke diruz lagunduko, eta gehienez ere 8.000 €.

d) Arte plastikoen eta Ikusmen-Arteen modalitatean, aurrekoez gain, honako gastu hauek ere diruz lagunduko daiteke:

1) Proiektua garatzeko beharrezkoak diren materialaren eta tresnen gastuak. Kanpo geratzen dira gastu hauek: ekipo informatikoak erosteko gastuak, ikus-entzunezko materiala zein argazkilaritzako eta zinematografiako materiala erostekoak.

2) Proiektua gauzatzeko beharrezkoa den lokalaren errentamendua.

3) Artisten sormen eta dedikazio gastuak, gehienez 6.000 € proiektuko.

Deialdi honi dagokionez, gastuak diruz laguntzeko gastutzat joko dira, baldin eta zalantzarik gabe erantzuten badiote diruz laguntzen den jardueraren izaerari, guztiz beharrezkoak badira eta ezarritako epearen barruan egiten badira. Diruz lagundutako gastuen eskuratze-kostua ezingo da izan haien merkatuko balioa baino handiagoa.

b) Los gastos de viaje que se realicen por la beneficiaria, serán subvencionables hasta los siguientes límites:

1.º Becas para proyectos que se realicen en la Comunidad Autónoma Vasca, excepto en Bizkaia, máximo 500 €.

2.º Becas para proyectos que se realicen en el resto del Estado, máximo 800 €.

3.º Becas para proyectos que se realicen en el extranjero, máximo 1.200 €.

c) Los gastos de alojamiento y manutención que se realicen por la beneficiaria, sólo serán subvencionables para las becas fuera de Bizkaia con un máximo de 8.000 €.

d) En la modalidad de Artes Plásticas y Visuales, además de los anteriores, serán subvencionables los siguientes gastos:

1.º Gastos de material y útiles necesarios para el desarrollo del proyecto, a excepción de los derivados de adquisición de equipos informáticos, audiovisuales, fotográficos, y cinematográficos.

2.º Arrendamiento de local para llevar a cabo el proyecto.

3.º Gastos por creatividad y dedicación de los y las artistas, con un máximo de 6.000 € por proyecto.

Se consideran gastos subvencionables a los efectos de esta convocatoria, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

4. Foru-dekretu honen helburua pertsona eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

4. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las personas solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad.

5. Beka hauek emateak eta haietaz gozatzeak, deialdi honetako modalitateetako edozeinetan, ez du ekarriko inolako kontratu- edo estatutu-loturarik ez lan- edo funtzionario-loturarik onuradunaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean.

5. La concesión y disfrute de estas becas, en cualquiera de las modalidades a que hace referencia la presente convocatoria, no supone establecimiento de relación contractual o estatutaria alguna, ni supondrá vinculación laboral o funcionarial entre la beneficiaria y la Diputación Foral de Bizkaia.

2. oinarria. *Onuradunak.*

Base 2. *Personas beneficiarias.*

1. Foru-dekretu honen bidez arautzen diren beken onuradunek trebakuntza sendoa izan behar dute beka eskatzen duten diziplinarako, ez dira egon behar maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan zehazten den egoeretakoren batean, eta, gainera, baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Podrán beneficiarse de las becas reguladas por el presente decreto foral aquellas personas que, poseyendo una sólida formación en la disciplina para la que solicitan y no estando incursas en las causas del art. 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos:

a) Europar Batasuneko estatu kide bateko naziotasuna edukitzea.

a) Tener nacionalidad en cualquiera de los estados miembros de la Unión Europea.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea, etenik gabe, 2020ko urtarrilaren 1etik hona.

b) Estar empadronada en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia de forma ininterrumpida desde el 1 de enero de 2020.

Baldintza hori ez da beharrezkoa izango 2021, 2022 edo 2023ko deialdietan Bizkaiko Foru Aldundiaren beka jaso duten eskatzaileentzat.

Este requisito no será necesario para las personas solicitantes que hubieran disfrutado de beca de la Diputación Foral de Bizkaia en las convocatorias de los años 2021, 2022 o 2023.

c) Arte Dramatikoa, Musika eta Dantza modalitateetan, deialdi honen aurreko urteetan Bizkaiko Foru Aldundiak emandako modalitate bereko bi beka baino gehiago jaso ez izana.

c) En las modalidades de Arte Dramático, Música y Danza no haber disfrutado en años anteriores al de la presente convocatoria de más de dos becas de la misma modalidad concedida por la Diputación Foral de Bizkaia.

Arte plastiko eta Ikusmen-Arteen modalitateetan, deialdi honen aurreko urteetan modalitate bereko bi beka baino gehiago jaso ez izana Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik, eta,

En la modalidad de Artes Plásticas y Visuales, no haber disfrutado en años anteriores al de la presente convocatoria de más de dos becas de la misma modalidad concedidas por la Diputación de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gainera, beka horietako azkena ez izatea 2023ko deialdikoa.

2. Bekak mugatuta daude modalitateari eta eskatzaileen adinari dagokionez; hauek dira mugak:

a) Arte plastikoak eta Ikusmen-Arteak: 1989. urtean edo hurrengoetan jaiotakoak.

b) Arte Dramatikoa: 1994. urtean edo hurrengoetan jaiotakoak, baldin eta eskabideak aktore, zirku edo zinemako espezialistaren trebakuntzarako eta prestakuntzarako badira, eta 1989an edo hurrengoetan jaioak, antzerki-zuzendaritza, eszenografia, luminoteknia, soinu eta jantzien modalitateetarako, bai eta zinema-zuzendaritzarako ere.

c) Musika: 1999. urtean edo hurrengoetan jaiotakoak, ahotsaren hobekuntza eta orkestra konposiziorako eta -zuzendaritzarako diren eskabideak izan ezik -horiek 1994. urtean edo hurrengoetan jaiotakoak izan daitezke-.

Era berean, nahitaezkoa izango da eskatzen den espezialitatean goi-mailako titulazio arautua izatea. Ez da goi-mailako titulazio arauturik aurkeztu behar izango tresnaren edo ahotsaren hobekuntzaren espezialitatean, baldin eta interesdunek teknika-, arte- eta interpretazio-maila handia dutela erakusten badute.

d) Dantza: 2004. urtean eta hurrengoetan jaiotakoak, baldin eta eskabideak arautudako dantzan trebatzeko eta hobetzeko badira eta 1994an edo hurrengoetan jaioak, koreografia-prestakuntzaren modalitatean.

3. Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-bidean, lan-arloan edo zigor-arloan zehapen irmoa izan dutenek ezin izango dute eskatu ez onuradun izan ere, ez eta honako hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenek ere: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako

Bizkaia y además, que esa última beca concedida no sea de la convocatoria 2023.

2. Las becas quedan limitadas, en cuanto a modalidad y edad de las personas solicitantes, como a continuación se hace constar:

a) Artes Plásticas y Visuales: nacidas en el año 1989 o siguientes.

b) Arte Dramático: nacidas en 1994 o siguientes, para aquellas personas que soliciten beca para formación y perfeccionamiento actoral, circense o en especialista de cine, y nacidas en 1989 o siguientes para las modalidades de dirección teatral, escenografía, luminotecnia, sonido y vestuario, así como en dirección cinematográfica.

c) Música: nacidas en 1999 o siguientes, excepto en perfeccionamiento vocal, composición y dirección de orquesta que podrán ser nacidas en 1994 y siguientes.

Asimismo, será necesario estar en posesión del título superior reglado en la especialidad que se solicite. Se exceptúa de la exigencia de titulación superior reglada en la especialidad de perfeccionamiento instrumental o vocal, a aquellas personas interesadas que muestren un elevado nivel técnico, artístico e interpretativo.

d) Danza: nacidas en el año 2004 o siguientes para aquellas solicitudes que vayan orientadas a la formación y perfeccionamiento en danza reglada, y nacidas en 1994 o siguientes en la modalidad de formación coreográfica.

3. En ningún caso podrán concurrir ni resultar beneficiarias quienes hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo, así como quienes incumplan las obligaciones establecidas en el Título III del Decreto Legislativo 1/2023, de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

## II. KAPITULUA

## Araubide juridikoa

3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

4. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan ere.

## CAPÍTULO II

## Régimen jurídico

Base 3. *Normativa aplicable.*

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV de su Reglamento de desarrollo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

III. KAPITULUA

## Prozedura

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikuluaren arabera, beka eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 19tik 2024ko otsailaren 23ko 13:30ak arte izango da.

3. Pertsona bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu dezake, eta modalitate bakar baterako. Eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, egindako azkena joko da baliozkotzat.

4. Adingabeen eskabideetan, adigabeen guraso-ahala edo legezko ordezkaritza duten pertsonak eskatzaileak izango dira, eta hori zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz egiaztatu beharko da. Ondorio guztietarako, azken horiek izango dira —eta ez adingabeak— jasotako kopuru ekonomikoaren onuradunak.

Nolanahi ere, 2. oinarrian adierazitako baldintzak adingabeari buruzkoak izango dira.

5. Aldiz, adingabea izango da bekaren onuraduna, baldin eta hura adin-nagusitasuna lortzen badu ordainketa izapidetu aurretik.

CAPÍTULO III

## Procedimiento

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de beca deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

En el catálogo de trámites de la sede electrónica se encuentra la ficha resumen del presente decreto foral.

2. El plazo para la presentación de solicitudes será desde el día 19 de enero de 2024 hasta las 13:30 horas del 23 de febrero de 2024.

3. Cada persona sólo podrá presentar una única solicitud y para una sola modalidad. En caso de presentar más de una solicitud se considerará como válida la última realizada.

4. En las solicitudes relativas a personas menores de edad, las solicitantes deberán ser quienes ejerzan la patria potestad u ostenten su representación legal, debiendo acreditarse ese hecho por cualquier medio válido en derecho. A todos los efectos serán éstas, y no las personas menores, las beneficiarias de la cantidad económica percibida.

En cualquier caso, los requisitos indicados en la base 2 se referirán a la persona menor de edad.

5. La persona menor en el tiempo de la solicitud que alcanzase la mayoría de edad antes de la tramitación del pago de la beca será la beneficiaria de la misma.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

6. Dantzaren modalitatean, aukeratu den espezialitatea (klasikoa, garaikidea, etab.) zehaztu beharko da.

6. En la modalidad de Danza deberá indicarse la especialidad por la que se opta (clásica, contemporánea, etc.)

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

Base 6. *Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.*

1. Eskabideak aurkezteko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira:

https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

1. Las solicitudes deberán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, ajustarse a los modelos oficiales disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Egingo den proiektuaren memoria honako hauek zehaztuta:

1) Proiektuaren edo ikastaroaren izenburua/identifikazioa.

2) Lortu nahi diren helburuak.

3) Proiektua edo ikastaroa egiteko datak.

4) Herria.

5) Egiteko zentroa edo lekua, hura publikoa edo pribatua den eta irakaskuntza arautua den ala ez adierazita.

6) Eskolen ordutegia.

7) Ikasketa-plana (beharrezkoa izanez gero).

8) Irakasleak.

b) Eskatzaileak ikastetxearekin izandako harremanei buruzko egiaztagiria eta/edo onarpen-ziurtagiria, halakorik badago.

2. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a) Memoria del proyecto a realizar con especificación de:

1.º Denominación/Identificación del proyecto, o curso.

2.º Objetivos que se persiguen.

3.º Fechas de realización.

4.º Localidad.

5.º Centro o lugar de realización con indicación de si éste es público o privado y especificando si la enseñanza es o no reglada.

6.º Horario de clases.

7.º Plan de estudios (para el caso que así se requiera).

8.º Profesorado.

b) Acreditación de los contactos con el Centro de estudios y/o certificación de admisión si lo hubiere.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Hala badagokio, beka eskatzen duen espezialitateari lotuta egindako ikasketen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du eskatzaileak.

c) En su caso, la solicitante deberá aportar una declaración responsable de los estudios realizados vinculados a la especialidad para la cual solicita la beca.

d) Arte plastiko eta Ikusmen-Arteen modalitatean, epaimahaiak baloratzeko, izangaiek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

d) En la modalidad de Artes plásticas y Visuales, a efectos de su valoración por parte del Tribunal, las personas aspirantes deberán aportar:

1) Helburuen txostena. Halakotzat jotzen da motibazio-gutun bat, gehienez 500 bat hitzekoa, zeinean eskatzaileak azaltzen baitu zergatik aurkeztu duen eskabidea.

1.º Informe de objetivos. Se entiende por tal una carta de motivación, de una longitud máxima aproximada de 500 palabras, en la que la persona solicitante relate las razones y motivos por los que presenta su solicitud.

2) Eskatzailearen curriculum vitaea.

2.º Currículum vitae de la persona solicitante.

3) Bere obraren dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa.

3.º Documentación gráfica o audiovisual de su obra.

h) La Diputación Foral de Bizkaia se reserva el derecho preferente de publicar los trabajos resultantes de las becas, siendo la corrección de las pruebas de imprenta previas a la publicación a cargo de la persona beneficiaria de las mismas, sin que esta publicación genere en favor de la persona becaria derechos económicos por la explotación de sus derechos de autor.

Eskubide horren erabilera lana behin betiko onartzen denetik sei (6) hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eta, kasu horretan, doako erreprodukzio- eta banaketa-eskubideen lagapena egiteko kontratua formalizatuko da. Kontratu hori bi urteko epean gauzatu beharko da, eta, epe hori igaro ondoren, bekadunak/autoreak askatasuna izango du lana bere kontura argitaratzeko, betiere, jasotako beka aipatuta.

El uso de este derecho deberá notificarse en el plazo de seis (6) meses a partir de la recepción definitiva del trabajo, en cuyo caso se formalizará el correspondiente contrato de cesión de derechos de reproducción y distribución gratuita, el cual deberá ejecutarse en un plazo de dos años, pasado el cual, la persona becaria/autora queda en libertad para publicarlo por su cuenta, haciendo siempre mención de la beca recibida.

i) Onuradun guztiek konpromisoa hartzen dute, hala badagokio, bekaren gaiari buruzko hitzaldiak emateko, eta kontzertu eta abarretan parte hartzeko, beka amaitu ondorengo bi urteetan.

i) Todas las personas beneficiarias se comprometen, en su caso, a impartir conferencias, participar en conciertos, exposiciones, etc., sobre el tema de la beca, durante un plazo de dos años a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Gehienenez ere, birritan egin beharko dute hori, Foru Aldundiak eskatzen dienean eta curriculum vitaean, Bizkaiko Foru Aldundiko bekadun izaera aipatu behar da.

j) Emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen zaintzea, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

k) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3. artikuluan aurreikusitako printzipio orokorrak betetzea, bereziki hizkuntza ez sexista erabiltzera hizkera mota guztietan (dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan, eta abar), edozein euskarritan, idatzizkoetan zein digitaletan.

l) Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak deitutako bilera, foro eta gainerako koordinazio-ekitaldietara joatea.

m) Deialdi honi dagokionez, diru-laguntza foral baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamenduaren 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak.

n) Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen

partir de su finalización, dos veces como máximo cuando así lo solicite la Diputación Foral, así como a mencionar en su Curriculum Vitae su condición de persona becaria de la Diputación Foral de Bizkaia.

j) Velar por que el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

k) Asumir, los principios generales previstos en el artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y especialmente la obligación de asumir un uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) en cualquier soporte escrito o digital generado.

l) Asistir a las reuniones, foros, comisiones y demás actos de coordinación convocados por la Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

m) A los efectos de la presente convocatoria, las personas beneficiarias de subvención foral quedan obligadas al cumplimiento de los requisitos y prohibiciones regulados en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 y en el artículo 53 del Reglamento foral de subvenciones, en materia de subcontratación.

n) Las demás previstas en el art. 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia y en los artículos 54 y siguientes del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.

Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo.

18. oinarria. *Itzulketa.*

Base 18. *Reintegro.*

1. Zenbait kasutan bekadun izatearen ondorioz jasotako diru-kopurua eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta aurreko oinarrietan ezarritako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez badira edo Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduan aurrekusitako kausaren bat gertatzen bada:

1. Procederá el reintegro de la cantidad recibida por la beca y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en las bases anteriores o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, entre otras:

a) Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada.

a) Incumplimiento de la obligación de justificación.

b) Emandako bekari dagokion helburua bete ez bada.

b) No cumplir la finalidad para la que la beca fue concedida.

c) Proiektua egiteko epea bete ez bada.

c) El incumplimiento del plazo de ejecución del proyecto.

d) Ezarritako baldintzak bete gabe lortzea beka.

d) Obtener la beca sin reunir las condiciones requeridas para ello.

e) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.

e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas.

f) Foru-dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak ez betetzea.

f) Incumplir los demás supuestos previstos en el presente decreto foral.

2. Bekaren xede den proiektuaren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, laguntza itzuli egin beharko da.

2. El exceso de financiación con relación al coste del proyecto para el que se ha concedido la beca también constituirá motivo de reintegro.

3. Honako arrazoi hauek direla-eta ere itzuli beharko da jasotako laguntza:

3. Asimismo podrán ser causa de reintegro:

a) Kultur Ekintzako Zerbitzuak ez badu positiboki baloratzen bekaren onuradunak aurkeztutako memoria, laguntza osorik itzuli beharko da.

a) Que el Servicio de Acción Cultural al efecto no valore positivamente la Memoria presentada por

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

la persona beneficiaria, lo que será motivo de reintegro total.

b) Onuradunak ez badu osorik garatzen diruz lagundutako proiektua, gaixotasuna dela-eta edo Kultur Ekintzako Zerbitzuak justifikatutzat jotzen dituen beste arrazoi batzuk direla-eta. Edozelan ere, itzuli beharreko kopurua proportzionalki kalkulatuko da, diru-laguntza jaso duen jarduera bekaren helburuari eta xedeari egokitu ez zaion aldiaren arabera.

b) Que la persona beneficiaria no desarrolle la totalidad del proyecto subvencionado por enfermedad y otros motivos que el Servicio de Acción Cultural considere justificados. En todo caso, la cantidad a reintegrar deberá ser proporcional al tiempo en que la actividad subvencionada no se haya ejecutado conforme al objeto y finalidad de la beca.

19. oinarria. *Datu pertsonalen babesa*.

Base 19. *Protección de datos de carácter personal*.

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordez aplikatu beharreko gainerako araudia.

Será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.

20. oinarria. *Aurrekontuko partida*.

Base 20. *Partida presupuestaria*.

1. 2024. urtean bekak emateko ezarri den aurrekontuko muga laurehun mila (400.000,00) euro da, 2024ko ekitaldiko aurrekontuko 0405 G/334104/46200 aurrekontuko partidaren kontura, 2007/0213 proiektua.

1. El límite presupuestario para la concesión de becas en el año 2024, se establece en la cuantía de cuatrocientos mil (400.000,00) euros, con cargo a la partida presupuestaria 0405 G/334104/46200 proyecto 2007/0213 del presupuesto de 2024.

2. Aurrekontu-muga modalitateen araberakoa izango da, eta honela banatuko da:

2. Este límite presupuestario se distribuirá atendiendo a las distintas modalidades, de la siguiente manera:

a) Arte plastikoetan eta Ikusmen-Arteetan, aurrekontu-kreditua hirurogeita bat mila (61.000,00) euro da.

a) En Artes Plásticas y Visuales el crédito presupuestario es de sesenta y un mil (61.000,00) euros.

b) Arte Dramatikoan, aurrekontu-kreditua laurogeita bat mila (81.000,00) euro da.

b) En Arte Dramático el crédito presupuestario es de ochenta y un mil (81.000,00) euros.

c) Musikan, aurrekontu-kreditua ehun eta hirurogeita bost mila (165.000,00) euro da.

c) En Música el crédito presupuestario es de ciento sesenta y cinco mil (165.000,00) euros.

d) Dantzan, aurrekontu-kreditua laurogeita hamahiru mila (93.000,00) euro da.

d) En Danza el crédito presupuestario es de noventa y tres mil (93.000,00) euros.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. Modalitate baten barruan ez bada aurrekontu-kreditu guztia ematen, adjudikatu gabeko kopurua gainerako modalitateen artean metatu ahal izango da, Zerbitzuak txostena egin ondoren.

3. En el caso en que en una modalidad no se conceda todo el crédito presupuestado, podrá acumularse la cantidad no adjudicada entre las restantes modalidades indistintamente previo informe del Servicio.

4. Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren (2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zen) 56. 3 artikuluan ezarritakoaren arabera, foru-dekretu honen babesean emaniko bekak baliodun izateko baldintza bat bete beharko da: dagokion ekitaldian foru-dekretutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatea. Halakorik ez bada, balio gabe geratuko dira diru-laguntza horiek.

4. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 56.3 del texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, aprobado por Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, la validez del otorgamiento de las becas concedidas al amparo del presente decreto foral queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del mismo en el ejercicio correspondiente.

## II. TITULUA

## Estipulazio espezifikoak

### I. KAPITULUA

### Arte plastikoak eta ikusmen-arteak

21. oinarria. *Arte plastikoen eta Ikusmen-Arteen beken helburua.*

1. Modalitate honetan beken helburua sormen artistikoko proiektuak egitea izango da; proiektuok edozein zentro motatan egin ahal izango dira, estudio partikularretan barne, eta edozein tokitan.

2. Ikerketa eta irakaskuntzari lotutako zenbait proiektu ez dira inoiz kontuan hartuko eta, hortaz, ezingo dute bekarik jaso; hain zuzen ere, hauek dira: graduondoko ikastaroak, master mota guztiak, doktoretza-ikastaroak eta doktore-tesiak egitea. Halaber, ezingo dute diru-laguntzarik jaso erakusketek eta haiek eragindako gastuek (garraioa, katalogoak, etab.)

## TÍTULO II

## Estipulaciones específicas

### CAPÍTULO I

### Artes plásticas y visuales

Base 21. *Objeto de becas en Artes Plásticas y Visuales.*

1. En esta modalidad las becas tendrán por objeto la realización de proyectos de creación artística que podrán ser desarrollados en todo tipo de centros, incluidos los estudios particulares, y en cualquier lugar.

2. Quedan excluidos y no serán susceptibles de beca, en ningún caso, los proyectos relacionados con la investigación y enseñanza: cursos de postgrado, cualquier tipo de master, cursos de doctorado, y la realización de tesis doctorales, así como la realización de exposiciones y los gastos derivados de las mismas, como transporte, catálogos, etc.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

22. oinarria. *Ebaluazio-irizpideak eta gutxieneko puntuazioa.*

Balorazioa egiteko, epaimahai kalifikatzaileak kontuan hartuko du aurkeztutako dokumentazioa, zerotik (0) hamarrera (10) bitarteko puntuazioa emanez; nahitaezkoa izango da gutxienez zazpi puntu (7) lortzea, eskabidea ebaluatzen jarraitzeko.

Zazpi (7) puntutik beherako puntuazioa lortzen bada, bekaren eskabidea ezetsi egingo da.

23. oinarria. *Arte plastikoen eta Ikusmen-Arteen beken zenbatekoa.*

Modalitate horretan onuradun bakoitzari eman ahal zaion gehieneko zenbatekoa aurrekontu araztuaren % 95 izango da, eta ez da kopuru hauek baino handiagoa izango:

a) Hamasei mila (16.000,00) euro Estatuan (Bizkaia ezik) edo atzerrian egiten diren proiektuen kasuan.

b) Sei mila (6.000,00) euro Bizkaian egiten diren proiektuen kasuan.

Ematen den diru-laguntza ezin da izan eskatutako zenbatekoa baino handiagoa izan.

II. KAPITULUA

Arte dramatikoa

24. oinarria. *Arte Dramatikorako beken helburua.*

Modalitate honetako beken xede dira Bizkaitik kanpo egiten diren aktore, zirku edo zinemako espezialistan trebakuntza eta/edo hobekuntza, antzerki-zuzendaritza, eszenografia, luminoteknia, soinua eta jantziak, eta zinema-zuzendaritza.

Base 22. *Criterios de valoración, y puntuación mínima exigida.*

El tribunal calificador elaborará su valoración en base a la documentación presentada, otorgando una puntuación de cero (0) a diez (10) puntos, siendo imprescindible obtener una puntuación mínima de siete (7) puntos para poder seguir evaluando la solicitud.

La obtención de una puntuación inferior a siete (7) puntos dará lugar a la desestimación de la solicitud de beca.

Base 23. *Importe de becas en Artes Plásticas y Visuales.*

En esta modalidad el importe máximo a conceder por persona beneficiaria será el 95 % del presupuesto depurado, y no superará las siguientes cuantías:

a) Dieciséis mil (16.000,00) euros, para proyectos a realizar en el Estado (salvo Bizkaia) o en el extranjero.

b) Seis mil (6.000,00) euros, para realizar proyectos en Bizkaia.

La cuantía concedida no podrá superar el importe solicitado.

CAPÍTULO II

Arte dramático

Base 24. *Objeto de becas en Arte Dramático.*

Las becas a conceder en esta modalidad tendrán por objeto la formación y/o perfeccionamiento actoral, circense o en especialista de cine, dirección teatral, escenografía, luminotecnia, sonido y vestuario, así como la dirección cinematográfica, que sean realizados fuera de Bizkaia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ikerketari lotutako zenbait proiektu ez dira inoiz kontuan hartuko eta, hortaz, ezingo dute bekarik jaso; hain zuzen ere, hauek dira: doktoretza-ikastaroak eta doktore-tesiak egitea.

25. oinarria. *Proba praktikoa.*

1. Bekaren xedea aktore trebakuntza eta/edo hobekuntza bada, proba praktikoa izango da hautagaiak berak aukeratu eta prestatutako testu batean oinarritutako interpretazio bat egitea, gehienez ere hamar (10) minutukoa. Testu horren fotokopia proba egiten den egunean aurkeztu behar da. Epaimahaiak, proba-egunean, antzezpena nola egingo den proposatuko du, bai eta zenbat iraungo duen ere.

2. Bekaren helburua bada zirku edo zinemako espezialista-arloko prestakuntza eta/edo hobekuntza, proba praktikoa ariketa bat izango da, eskatzaileak proposatutakoa. Halaber, eskabidea aurkezteko orduan, egin beharreko ariketaren beharrizan tekniko zehatzak jakinarazi beharko ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiak nekez har baditzake bere gain beharrizan teknikoak, eskatzaileari eskatuko zaio 15 eguneko epean aurkez dezala antzoki batean beharrizan teknikoak kontuan hartuta erraz egiteko moduko beste ariketa bat. Hala egin ezean, eskabidea atzera egindakotzat joko da.

3. Bekaren helburua antzerki-zuzendaritzan, eszenografian, luminoteknian, soinuan eta jantzietan, bai eta zinema-zuzendaritzan ere, prestakuntza eta/edo hobekuntza finantzatzea bada, epaimahaiak aukeratutako testu bati buruzko proposamena egitea izango da proba praktikoa.

Eskatzaileek epaimahaiak beren proposamena prestatzeko egokitzat jotzen duen denbora izango dute, eta, ondoren, haren aurrean

Quedan excluidos y no serán susceptibles de beca en ningún caso, aquellos proyectos relacionados con la investigación, y aquellos que hagan referencia a la realización de cursos de doctorado, o de tesis doctorales.

Base 25. *Prueba práctica.*

1. En el caso de que el objeto de la beca sea la formación y/o perfeccionamiento actoral, la prueba práctica consistirá en una interpretación sobre la base de un texto preparado y elegido por la persona aspirante, cuya fotocopia deberá aportar el día de la prueba, con una duración máxima de diez (10) minutos. El tribunal, en el momento de la prueba, será quien haga la propuesta de cómo se realizará dicha interpretación y la duración de la misma.

2. En el caso de que el objeto de la beca sea la formación y/o perfeccionamiento circense o en especialista de cine, la prueba práctica consistirá en un ejercicio propuesto por la persona solicitante. Asimismo, deberá comunicar las necesidades técnicas concretas del ejercicio a realizar a la hora de la presentación de la solicitud.

En el supuesto de que las necesidades técnicas sean difícilmente asumibles por la Diputación Foral de Bizkaia, se instará a la persona solicitante a que en el plazo de 15 días presente otro ejercicio con necesidades técnicas factibles de realizar en un teatro. Si no lo hiciera, se dará por desistida la solicitud.

3. En caso de que la beca tenga por objeto financiar la formación y/o perfeccionamiento en dirección teatral, escenografía, luminotecnia, sonido y vestuario, así como en dirección cinematográfica, la prueba práctica consistirá en la la elaboración de una propuesta sobre un texto elegido por el tribunal.

Las personas solicitantes dispondrán del tiempo que estime el tribunal para preparar su propuesta, que a continuación deberán defender ante él.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

defendatu beharko dute. Halaber, epaimahaiak beharrezkotzat jotzen dituen galdera guztiak egin ahal izango dizkie izangaiei, balorazioa eraginkortasunez eta efizientziaz egiteko.

Asimismo, el tribunal podrá realizar a las personas aspirantes cuantas preguntas considere necesarias para una eficaz y eficiente valoración de esta.

4. Proba praktikoa aurrez aurre egingo da. Hala ere, unean uneko inguruabarrak direla-eta ezin bada modu horretan gauzatu, Bizkaiko Foru Aldundiak behar diren baliabide teknikoak jarriko ditu hura telematikoki egiteko, salbuespen gisa, erabakia betiere epaimahaiaren esku dagoela.

4. La prueba práctica tendrá lugar de modo presencial. No obstante, si por las circunstancias concurrentes del momento no pudiera celebrarse de este modo, la Diputación Foral de Bizkaia habilitará los medios técnicos necesarios para que la misma se celebre excepcionalmente de forma telemática, dependiendo en todo momento de la decisión del tribunal.

26. oinarria. *Ebaluazio-irizpideak*.

Base 26. *Criterios de valoración*.

Balorazioa egiteko, epaimahai kalifikatzaileak kontuan hartuko du egindako proba praktikoa, zerotik (0) hamarrera (10) bitarteko puntuazioa emanez; nahitaezkoa izango da gutxienez zazpi puntu (7) lortzea, eskabidea ebaluatzen jarraitzeko.

El tribunal calificador elaborará su valoración en base a la prueba práctica realizada, otorgando una puntuación de cero (0) a diez (10) puntos, siendo imprescindible obtener una puntuación mínima de siete (7) puntos para poder seguir evaluando la solicitud.

Zazpi (7) puntutik beherako puntuazioa lortzen bada, eskabidea ezetsi egingo da.

La obtención de una valoración inferior a siete (7) puntos dará lugar a la desestimación de la solicitud.

27. oinarria. *Arte Dramatikorako beken zenbatekoa*.

Base 27. *Importe de becas en Arte Dramático*.

Modalitate horretan onuradun bakoitzari eman ahal zaion gehieneko zenbatekoa aurrekontu araztuaren % 95 izango da, eta ez da hamasei mila (16.000,00) eurotik gorakoa izango bekako.

En esta modalidad el importe máximo a conceder por persona beneficiaria será el 95 % del presupuesto depurado, y no superará los dieciséis mil (16.000,00) euros por beca.

Ematen den diru-laguntza ezin da izan eskatutako zenbatekoa baino handiagoa izan.

La cuantía concedida no podrá superar el importe solicitado.

## III. KAPITULUA

## Musika

## CAPÍTULO III

## Música

28. oinarria. *Musikarako beken helburua*.

Base 28. *Objeto de becas en Música*.

Musikaren modalitatean ematen diren beken xedea da Bizkaitik kanpo ematen diren

Las becas a conceder en la modalidad de Música tendrán por objeto estudios de formación y/o

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

trebakuntzako eta/edo hobekuntzako ikasketa hauek: kontserbatorioetako ikasketa-planetan sartzen den edozein musika-tresna jotzen edo ahots-teknikan, zuzendaritzan edo konposizioan hobetzekoak.

perfeccionamiento destinados al perfeccionamiento musical de cualquier instrumento reconocido en los planes de estudio de los conservatorios, o vocal, así como la dirección o composición, que se impartan fuera de Bizkaia.

29. oinarria. *Beka eskuratzeko betekizunak.*

Base 29. *Requisitos para obtener una beca.*

1. Nahitaezkoa izango da eskatzen den espezialitatean goi-mailako titulazio arautua izatea.

1. Será necesario estar en posesión del título superior reglado en la especialidad que se solicite.

2. Ez da goi-mailako titulazio arauturik aurkeztu behar izango tresnaren edo ahotsaren hobekuntzaren espezialitatean, baldin eta interesdunek teknika-, arte- eta interpretazio-maila handia dutela erakusten badute.

2. Se exceptúa de la exigencia de titulación superior reglada en la especialidad de perfeccionamiento instrumental o vocal, a aquellas personas interesadas que muestren un elevado nivel técnico, artístico e interpretativo.

30. oinarria. *Proba praktikoa.*

Base 30. *Prueba práctica.*

1. Bekaren xedea trebakuntza eta/edo hobekuntza instrumentala bada, hautagaiek honako lan hauek interpretatu beharko dituzte, egoitza elektronikoan zehazten diren lanen artean aukeratutako bat eta eurek hautatutako beste bat, zeinaren partitura probaren egunean bertan aurkeztu beharko duten. Perkusioaren kasuan, nahitaez eurek aukeratutako bi lanak interpretatu beharko dituzte (lamina-obra eta perkusio-obra).

1. En caso de que el objeto de la beca sea la formación y/o el perfeccionamiento instrumental, las personas aspirantes elegirán una de las obras de entre las que figuran en sede, y otra obra de libre elección cuya partitura se presentará el mismo día de la prueba. En el caso de percusión deberán interpretar obligatoriamente dos obras de libre elección (para láminas y para percusión).

Bekaren xedea ahotsaren trebakuntza eta/edo hobekuntza bada, edo proba egiteko erabiliko den tresna ez badago jasota zerrendan, hautagaiak berak aukeratutako obra bi interpretatuko ditu, eta lan horien partiturak probaren egunean aurkeztu beharko ditu.

En el caso de que el objeto de la beca sea la formación y/o el perfeccionamiento vocal, o si el instrumento con el que se quiere realizar la prueba no consta en el listado disponible al efecto, la persona aspirante interpretará dos obras de su libre elección, cuyas partituras deberá presentar el día de la prueba.

Musika-lana interpretatzeko pianista batek laguntzea behar bada, eskatzaileak berak eraman behar du.

En el caso de ser necesario para la interpretación de la obra musical, las personas solicitantes deberán aportar pianista acompañante.

2. Bekaren xedea zuzendaritza arloko trebakuntza eta/edo hobekuntza bada, proba

2. En caso de que la beca se destine a la formación y/o perfeccionamiento en materia de dirección, la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

praktikoa epaimahaiarekin egingo den elkarrizketa bat izango da.

prueba práctica consistirá en una entrevista con el tribunal.

3. Bekaren xedea konposizioaren arloko trebakuntza eta/edo hobekuntza bada, epaimahaiak hautagaiak elkarrizketatuko ditu.

3. En el supuesto de que el objeto de la beca sea la formación y/o perfeccionamiento en materia de composición, las personas aspirantes serán entrevistadas por el tribunal calificador.

4. Proba praktikoa aurrez aurre egingo da. Hala ere, unean uneko inguruabarrak direla-eta ezin bada modu horretan egin, Bizkaiko Foru Aldundiak behar diren baliabide teknikoak jarriko ditu hura telematikoki egiteko.

4. La prueba práctica tendrá lugar de modo presencial. No obstante, si por las circunstancias concurrentes del momento no pudiera celebrarse de este modo, la Diputación Foral de Bizkaia habilitará los medios técnicos necesarios para que la misma se celebre de forma telemática.

31. oinarria. *Ebaluazio-irizpideak.*

Base 31. *Criterios de valoración.*

Balorazioa egiteko, epaimahai kalifikatzaileak kontuan hartuko du egindako proba praktikoa, zerotik (0) hamarrera (10) bitarteko puntuazioa emanez; nahitaezkoa izango da gutxienez zazpi puntu (7) lortzea, eskabidea ebaluatzen jarraitzeko.

El tribunal calificador elaborará su valoración en base a la prueba práctica realizada, otorgando una puntuación de cero (0) a diez (10) puntos, siendo imprescindible obtener una puntuación mínima de siete (7) puntos para poder seguir evaluando la solicitud.

Zazpi (7) puntutik beherako puntuazioa lortzen bada, eskabidea ezetsi egingo da.

La obtención de una valoración inferior a siete (7) puntos, dará lugar a la desestimación de la solicitud.

32. oinarria. *Musikarako beken zenbatekoa.*

Base 32. *Importe de becas en Música.*

Modalitate honetan onuradun bakoitzari eman ahal zaion gehieneko zenbatekoa aurrekontu araztuaren % 95 izango da, eta ez da hamasei mila (16.000,00) eurotik gorakoa izango bekako.

En esta modalidad el importe máximo a conceder por persona beneficiaria será el 95 % del presupuesto depurado, y no superará los dieciséis mil (16.000,00) euros por beca.

Ematen den diru-laguntza ezin da izan eskatutako zenbatekoa baino handiagoa izan.

La cuantía concedida no podrá superar el importe solicitado.

## IV. KAPITULUA

## Dantza

## CAPÍTULO IV

## Danza

33. oinarria. *Dantzarako beken helburua.*

Base 33. *Objeto de becas en Danza.*

1. Dantzaren modalitatean ematen diren beken xedea da arautako dantzan Bizkaiko Lurralde

1. Las becas a conceder en la modalidad de Danza tendrán por objeto la formación y/o

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Historikotik kanpo trebatu eta/edo hobetzea eta koreografian trebatzea.

perfeccionamiento en danza reglada, así como, la formación en coreografía, que se realicen fuera del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Ikerketari lotutako zenbait proiektu ez dira inoiz kontuan hartuko eta, hortaz, ezingo dute diru-laguntzarik jaso; hain zuzen ere, hauek dira: doktoretza-ikastaroak eta doktore-tesiak egitea.

2. Quedan excluidos y no serán subvencionables en ningún caso, aquellos proyectos relacionados con la investigación, y aquellos que hagan referencia a la realización de cursos de doctorado, o de tesis doctorales.

34. oinarria. *Proba praktikoa.*

Base 34. *Prueba práctica.*

1. Bekaren xedea araututako dantzan trebatzea eta/edo hobetzea bada, proba praktikoak zati bi izango ditu, eta bakoitzari zero (0) eta bost (5) arteko puntuazioa emango zaio.

1. En caso de que el objeto de la beca sea la formación y/o perfeccionamiento en danza reglada, la prueba práctica constará de dos partes, valorando cada una de ellas con una puntuación de cero (0) a cinco (5) puntos.

a) Epaimahaiak proposatutako klase praktiko bat egitea.

a) Realización de una clase práctica propuesta por el tribunal.

b) Bariazio bat interpretatzea; gehienez ere bost (5) minutu iraungo du. Izangaiak proba egiteko erabiliko duen musika-grabazioa aurkeztu beharko du probaren egunean.

b) Interpretación de una variación, cuya duración máxima será de cinco (5) minutos. La persona aspirante deberá aportar en el día de la prueba, como acompañamiento de su actuación, la grabación musical que habrá de servir para la realización de la misma.

2. Beka koreografiako prestakuntzara bideratzen bada, proba praktikoa epaimahaiak egindako elkarrizketa bat izango da, balioesteko aurkeztutako material grafikoan eta/edo ikus-entzunezkoan oinarrituta.

2. En caso de que la beca se destine a la formación en coreografía, la prueba práctica consistirá en una entrevista realizada por el tribunal en base al material gráfico y/o audiovisual aportado por la persona aspirante, junto con la solicitud.

3. Eskatzaileak berak jarri beharko ditu proba praktikoa egiteko beharrezkoak diren material bereziak, modalitate guztietan.

3. Los materiales de carácter especial que sean precisos para la ejecución de la prueba práctica en cualquiera de sus modalidades serán aportados por la persona aspirante.

4. Proba praktikoa aurrez aurre egingo da.

4. La prueba práctica tendrá lugar de modo presencial.

35. oinarria. *Ebaluazio-irizpideak.*

Base 35. *Criterios de valoración.*

Balorazioa egiteko, epaimahai kalifikatzaileak kontuan hartuko du egindako proba praktikoa,

El tribunal calificador elaborará su valoración en base a la prueba práctica realizada, otorgando una

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zerotik (0) hamarrera (10) bitarteko puntuazioa emanez; nahitaezkoa izango da gutxienez zazpi puntu (7) lortzea, eskabidea ebaluatzen jarraitzeko.

Zazpi (7) puntutik beherako puntuazioa lortzen bada, eskabidea ezetsi egingo da.

36. oinarria. *Dantzarako beken zenbatekoa.*

Modalitate horretan onuradun bakoitzari eman ahal zaion gehieneko zenbatekoa aurrekontu araztuaren % 95 izango da, eta ez da hamasei mila (16.000,00) eurotik gorakoa izango bekako.

Ematen den diru-laguntza ezin da izan eskatutako zenbatekoa baino handiagoa izan.

puntuación de cero (0) a diez (10) puntos, siendo imprescindible obtener una puntuación mínima de siete (7) puntos para poder seguir evaluando la solicitud.

La obtención de una valoración inferior a siete (7) puntos, dará lugar a la desestimación de la solicitud.

Base 36. *Importe a conceder en becas para Danza.*

En esta modalidad el importe máximo a conceder por persona beneficiaria será el 95 % del presupuesto depurado, y no superará los dieciséis mil (16.000,00) euros por beca.

La cuantía concedida no podrá superar el importe solicitado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AB0X-8JBP-SMJT-KTTX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus